

## **EUSKADIKO DMD-DHEren BATZAR NAGUSI OHIKOAREN AKTA**

**EGUNA:** 2019-05-19

**ORDUA:** 11:30ean lehen deialdia, eta 12:00etan bigarren deialdia.

**LEKUA:** Aiztogile kalea, 61 behe (sarrera Santa Ana kantoitik), Gasteiz.

### **GAI-ZERRENDA**

- 1. Azken batzarreko akta onestea.**
- 2. Presidenteorde eta idazkari karguak berritzea. Batzordekideak izendatzea.**
- 3. 2018ko jardueren memoria.**
- 4. 2018ko kontuak aurkeztu eta onestea, egoki joz gero.**
- 5. 2019rako proiektuak.**
- 6. Galde-eskeak**

28 bazkide bertaratu dira.

Ongi etorria ematearekin batera, batzarra ireki du, bigarren deialdian, Concha Castells presidenteak.

### **Eztabaida eta erabakiak:**

#### **1.- Azken batzarreko akta onestea.**

Irakurri da azken batzarraren akta (2018ko maiatzaren 5ean egina), eta aho batez onartu da.

#### **2.- Presidenteorde eta idazkari karguak berritzea. Batzordekideak izendatzea.**

Jakinarazi da dimisioa eman dutela elkarteko presidenteorde Ernesto Alonso de Miguel jaunak eta idazkari Marian Olea Retolaza andreak, eta kargu horiek zein batzordekideenak betetzeko pertsonak hautatzera ekin zaio. Aho batez onetsi da proposamen hau:

**PRESIDENTEORDEA:** Iñaki Olaizola Eizagirre.

**IDAZKARIA:** Cristina Valverde Ibáñez.

**BATZORDEKIDEA:** Rafael Sal Fernández.

BATZORDEKIDEA: Marta Barandiaran Forcada.

BATZORDEKIDEA: Esperanza Urrieta Espín.

BATZORDEKIDEA: Arantza Garaialde Maiztegi.

BATZORDEKIDEA: Julen Goñi Salvador.

BATZORDEKIDEA: Carlos Burón Herrera.

BATZORDEKIDEA: Mario Unamuno Plazaola.

Beren karguetan jarraituko dute:

Presidente: Concha Castells Carrillo

Diruzain: Teresa G. del Valle Irala

Batzordekide: Juantxo Dominguez López

### **3.- 2018ko jardueren memoria.**

Irakurri eta komentatu egin dira urtean zehhar garatutako jarduerak, bai eta aho batez onetsi ere. Bazkide-kopuruaren hazkuntza eta parte-hartzea azpimarratu dira.

Nabarmendu egin da, baita, elkarteak presentzia handia izan duela komunikabidetan eta hedapen asmodun ekintza publikoetan.

Oso modu positiboan baloratu da Maribel Tellaetxeren kasuak izan duen oihartzun mediatikoa. Haren familiak komunikabideetan borondatezko heriotzaren alde egin duen lana aparta izan da, eta, elkarte gisa, esker ona adierazten diegu horretan jarri duten ahalegin eta dedikazioagatik. Elkarte adi egon da kasu horren aurrean, eta eskatu diguten laguntza oro eman izan die.

### **4.- 2018ko kontuak aurkeztu eta onestea, egoki joz gero.**

Partidak, diru-sarrerak eta gastuak azaldu dira, eta aho batez onetsi dira.

### **5.- 2019rako proiektuak.**

Aho batez onetsi da:

- 2018koaren ildo beretik, prestakuntza eta elkarte ezagutarazteko jarduerak antolatzea, ahalik eta bide gehienak baliatuz.


- Heriotza duinaren, eutanasiaren eta suizidio lagunduari buruzko agiriak eta gertakariak aztertzea, bai eta horien aurreko jarrerari buruzkoak ere.
- Azaroaren 9an Heriotza Duinaren Eguna antolatzea, Donostiako Miramar jauregian. Gipuzkoako DMD-DHEk ekimena edukiz janzteko egiten ari den lanen berri eman du.
- Banaka hurbiltzen zaizkigun kasuei arta ematen jarraitzea, dela elkarte barruan, dela kanpoan ere.
- Lurralde bakoitzeko hileroko bilerekin jarraitzea.
- Osasunaren aldeko Euskal Foroan parte hartzea.
- Aintzat hartzea elkarteak kalean duen presentzia areagotzearen alde bazkide batzuek egindako eskaera, hartara bizitzaren amaieran norbanakok hartutako erabakiekiko errespetu eza salatzeke, esaterako Maribel Tellaetxe eta M<sup>a</sup> José Carrascoren kasuen edo antzekoen aurrean.
- Lantalde bat osatzea, Euskadiko hiru lurraldeetako ordezkariekin, elkartearen funtzionamenduan eta aintzat hartzeko agirietan sakontzeko.
- Bultzada ematea elkartearen funtsezko agiriak itzultzeko lanari.

#### 6.- Galde-eskeak.

Ez du inork hitza eskatu.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

O. E.  
PRESIDENTEA



CONCHA Castells Carrillo

IDAZKARIA,



Marian Olea Retolaza